



Vertigo Rock:

**“Herriko taldeak bultzatzea
dugu helburu”**

Dikers, Anestesia, Eskarmiento eta Storbais taldeek osatzen dute aurtengo Vertigo Rock jaialdiko kartela. Antolatzaileek (herriko musika taldeek eta beste hainbat gaztek), argi daukate: “Gure helburua, herriko musika taldeak bultzatzea da eta baldintza egokietan jotzeko aukera ematea. Talde garrantzitsuak ekartzen ditugu, jende gehiago hurbilduko delako ikustera”. Aurten, 5 urte baino gehiago jo gabe egon eta gero, Storbais taldearen buelta ikusteko aukera egongo da.

elkarrizketa

- *Vértigo Rock* antolatzen duzuen bigarren urtea da, gustora geratu zineten iazko emaitzarekin?

Egia esanda, oso gustora geratu ginen, gainera kontutan izan behar da oso denbora gutxitan antolatu genuela: hiru hilabetetan, abuztua tartean zegoela, eta hilabete horretan ezin izan genuen ezer egin, ezin genuelako hornitzaileekin, ez managerrekin ez taldeekin hitz egin.

- Zenbat lagun bildu zintezten?

Ba kalkulio horiek egitea zaila da, baina jaialdiak 5 ordu iraun zituen eta ordu horietan 500 lagun inguru plaza-tik pasatu zirela uste dugu. Jende gehien bildu zuen kontzertua Kautarena izan zen, 300 lagun inguru.

- Hala eta guztiz ere, urritik maitzera pasatu da **Vértigo Rock**, zer dela eta?

Kalean denez, uda inguruan ospatu nahi genuen, eguraldi ona izateko (nahiz eta asmatzea ezinezkoa den...). Ermuan leku egokia eta ezalita ez izateak ekartzen ditu arazo hauek: Aritz-mendi pilotalekua ezin da erabili eta kiroldegia, hainbat arrazoi direla eta, ezta ere, beraz, momentuz, zerura begiratu beharko dugu, ea lainoak agertzen ez diren. Egunen batean hori aldatzea espero dugu. Durangoko erakustazoka bezalako eraikina



Ermuan izatea zoragarria izango litzateke, kultur ekitaldiak antolatuz ahal izateko.

- Leku itxi bat egon beharko zela uste duzue, sarrera kobratuko zenuten?

Ez, jaialdia betirako dohai-
nekoa izatea da gure asmoa.

- Beste zeozer aldatu da
edo aldatzea gustatuko
litzazueke?

lazio edizioak arrakasta izan zutenaz, oinarri berdina hartu ditugu. Hala eta guztiz ere, talde bat gutxiago egongo da, gehienez 3:00retan bukatu behar dugulako. Iaz, inguruetako auzotarrek kexatu egin ziren, goizeko 6:00ak arte musika egon zelako, eta

guk oraindik ez daukagu beste jai batzuen 'katxea', Inauteriak edo Santixauak, esate baterako, plazan gaupasak egin ahal izateko -diote berriz.

- Berritasun gehiago?

Kontzertuetaz gain, arratsaldean ekimen ezberdinak egongo dira plazan, rock musikaren kulturarekin lotura dutenak: musika argazkilari-tza lehiaketa (edozeinek parte ahal izango du) eta Ermuko 3 graffiterokin graffiti musikalaren erakustaldia. Gainera, 'Guitar Hero' txapelketa lotu nahi dugu, nahi duen guztiak parte hartzeko.

- Nola sortu zen jaialdia antolatzeko ideia?

Idea berez, 2007ko maiatzean sortu zen, L.P.C.-ren disko berriaren aurkezpena egiteko InsoHmno eta L.P.C.k emandako kontzertuaren ostean. Egun horretan, nahiz eta eguraldi txarra egin, 100

persona baino gehiago bildu
zen plazan. Udalak, herriko
taldeei dirulaguntza eman zi-
gun, jaialdi handiagoa pres-
tatu ahal izateko. Hala eta
guztiz ere, musikaren ba-
rruan gaudenok jaialdiaren
ideia beti izan dugu buruan
eta zorionez denbora gutxian
antolatu ahal izan dugu.

- lazko lagun berdinak jarraitzen duzue antolaketan?

laz, denbora eza zela eta, 5 lagun artean antolatuta genuen. Hala ere, jaialdiaren egunean, Ermua eta Mallabiko beste 15 lagun laguntza desinteresatua eskeini zigten: kartelak ipintzen, txosnan, karpak jartzen eta behar guztiak egiten. Orain herriko rock taldeek eta herriko beste gazte batzuek antolatzen dugu.

- Zenbat lagun egiten duzue lan antolaketan eta noiz biltzen zarete?

ILEAPAINDEGIA

Trasken

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguruak

San PelayO

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre kalearen bihotzean

Ermua eta Mallabiko 20 lagun gara, 18 eta 27 urte artekoak, eta Lobianon biltzen gara.

- Zer laguntza dituzue? Nahikoak direla uste duzue?

Laguntzarik handiena Udalarena da oraindik ere. Horrekin, kanpoko taldeen gastuak, soinu ekipoaren alokairua eta publizitatea (kartelak...) ordaintzen ditugu. Aurten gainera, 20 taberna inguruk laguntza eman digute eta horiei esker arratsaldeko ekintzak, kamisetak eta beste hainbat gauza egin ahal dugu.

Aurtengo jaialdia antolatzeko nahikoak dira laguntzak, aurrera begira, babesleren bat lortzen ez badugu, jaialdia haztea ezinezkoa izango da. Zorionez, bai edizio honetan zein iazkoan, taldeek euren 'katxeak' bajatu dituzte hemen jo ahal izateko eta aurtengo jaialdia iazkoa bezain ona bada, datorren urtean Udalak diru-

laguntza handitzea espero dugu.

Bestetik, guk ezin dugu dirulaguntzatik ezer kobratu, beraz, txosnan ateratzen den dirua, musika taldeen elkarterako eta hurrengo jaialdia antolatzeko erabiliko da.

- Noiz hasi zineten bigarren Vértigo Rock prestatzen? Denbora asko ematen du?

Aurrekoa bukatu bezain laister: data egokiagoa bilatzen eta akatsak topatzen, aurten ez errepikatzeko. Gero, abendutik aurrera biltzen hasi ginen, jaialdiari forma emateko.

Denbora asko eskatzen du eta denbora aprobetxatu behar dugu, lana ez pilatzeko. Horregaitik, eta antolaketan lagun gehiago gaude-lako, aurtengoa errazagoa izaten ari da.

- Zer musika mota entzun ahal da Vértigo Rocken?

Ba rock-az gain, Punk, Metal, Ska, Heavy, dena da po-

sible, eta egunen batean, dena elkartzea gustatuko litzatiguke. Bestalde, talde aukeraketa zaila izaten da, bakoitzak bere gustuak dituelako. Azkenean, guztioi gustatzen zaizkigun taldeekin zerrenda egiten da, aurrekontuak begiratzen ditugu eta talde bakoitzaren managerrarekin negoziatzen da. Gure aurrekontua hain bajua denez, zerrenda hori 4 edo 5 taldeekin bakarrik geratzen da, beraz ez daukagu non aukeratu. Hala eta guztiz ere, zorte handia daukagu, iaz ekarritako 3 taldeak eta aurtengo 2ak estatuko onenetarikoak direlako eta Vértigo Rocken egoiteko ahalegin handiak egin dituzte.

"Babeslerik lortzen ez badugu, jaialdia haztea ezinezkoa izango da"

- Zuen kartelak oso ikusgarriak izaten dira, zuek egin dituzue?

Kartelak Kubik enpresako Pablo Carballo (Lobo) egin ditu. Berak InsoHmnioren 'Animal de Noche' maketaren portada egin zigun eta bere lanarekin oso pozik geratu ginen. Hori dela eta, jaialdia sortu zenean, berarengana zuzenean jo genuen, eta erabaki oso ona izan zen.

- Jarraitzeko asmoa duzue?

Bai, asmo hori daukagu. Urte batzuk barru, jaialdien zirkuitoan Ermua eta Vértigo Rock erreferentzi bihurtzea nahi dugu. Baina hori, erakunde eta babesleren inplikazio mailak erabakiko du. Guk proiektua ilusio handiz bizi dugu eta jende asko Ermura ekar dezakeela uste dugu. Herria ezagutzera eman nahi dugu, baina gauza politen birtartez, eta ez betiko gauzengatik (nahiz eta gauza txarrekin gehiago 'saltzen' duten).

- Bide batez, zergaitik aukeratu zenuten Vértigo Rock izena?

Ba, egia esan, ez daukagulako, jaialdi honekin, oso goraino igotzeko beldurrik, hori delako hain justu, urte batzuk barru, lortu nahi duguna.

Dorleta Vidal



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Solozabal estankoa



torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

DROGETENITTURRI EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50
Elexoste

